



haragia
eta
porlana

DANELE
SARRIUGARTE

E
l
k
a
r
r
l
r
a
k
u
r
r
i
z

BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

DANELE SARRIUGARTE MOCHALES

haragia eta porlana

Maidor Ilarregirentzat

E
l
k
a
r
r
l
r
a
k
u
r
r
i
z

Aitorpena

Nire izena Vanessa da. Hogeita hamabi urte. Bizilekua, Donostia.

Luzaroan, idealista.com webguneak beldur atabikoa eman izan zidan.

Esan dut.

Ziur aski ez nintzen higiezin-agentzia digital zein fisiko bat han urrunean begiztatu orduko ipurdia galdu beharrean ihes egiteko larritasuna egiten zitzaion bakarra, eta hainbat urtez, gainera, nire fobia bitxi eta guztiz espezifikoko hark ez zidan batere buruhausterik ez arazorik ekarri. Inork ez zuen gaia aipatzen, eta kito. Harik eta beste hizpiderik izan ez genuen arte.

Nire neska-lagun ohiak, esate baterako, iPad-eko bilatzaileko menuan iltzatuta zeukan lasterbidea: igande alferretan, ohetik atera gabe, eta egunkariak irakurri eta gero, edo bitartean, edo aurretik, begiratu bat ematen zion, denbora-pasan –gaiaren pro bat zen, eta idealista.com ez ezik, fotocasa.es ere begiratzen zuen erregulariki—. Ez zen ezeren bila ari, ez behintzat epe berehalakoan edo laburrean: berak jada bazuen apartamentu bat, eta, edonola ere, erakartzen zuten iragarkietako prezioak garestiegiak ziren; gozagarria gertatzen zitzaion, hori baino ez.

Aberaskume espekulatuzailea izan gabe ere higiezin negoziokoak grina pizten dion jendea existitzen dela erakutsi zidan, beste hainbat gauzaren artean, Noak.

Harako igande horietan, metro-karratuak, kale-izenak eta hipoteka-kalkulagailuak aipatzen zizkidalarik, aurpegia desitxuratzen zitzaidan.

Esajeratua dirudi, eta, seguru asko, esajeratua zen.

Susmagarriak

Egia esan, ez dakit gehiegizkoa zen ala ez. Baina beste zerbait ez ote nuen behar barrundatzen hasia nintzen.

Batetik, Noaren eraginez: ezagutu ginenez geroztik, nekeak izan zituen nire alderdi makur, zentzugabe, biktimistei ameto emateko. Parez pare jartzen zizkidan, aldiro.

Bestetik, ni neu ez nintzen askorik puzten nire ezgaitasun agerikoekin, eta harrotzeko modukoak irizten ez nien alderdiak ere neure partetzat hartzeko eta gogoko nituen ezaugarriekin neurritz kanpo ez identifikatzeko eta batez ere nire frustrazio-motibo ooren ardura besteri ez egozteko bide luze, gorabeheratsu eta nekoso bezain premiazko horretan lehen urrats zalantzatiak egiten nirenen ordurako, are gehiago Noarekin ergel baten pare maitemindu nintzenetik.

Izan zitekeen, beharbada, beste zerbait behar izatea nik?

Agian horregatik maitemindu nintzen Noarekin nire burua irrigarri uzteraino? Eta segitu nuen maiteminduta inoiz irudikatu ezin nezakeen bezain luzaro eta nire burua soilik hein batean ez-hain-irrigarri utziz? Gauza batzuk ez zizkidalako onartuko eta autoexigentzia eta bilaketa-grina, biak ere desira-iturri ahaltuak niretzat, beti koska bat gehiago estutzer behartuko ninduelako? Harik eta noizbait konturatuko nintzen arte, tango hartan, nire taratxoez gainera, bereek ere bazutela eraginik, eta, aurrera egin nahi izatekotan, egiaz aurrera egin, errealitate horri amore ematea beste erremediorik ez nuela izango, eta, halako zerbait esan beharko niola: begira, Noa, nik asko maite zaitut, baina hauxe naiz, hauxe da dagoena: zuk ikusi?

Beharbada, eta funtsean, hori zen kontua, horixe besterik ez: beste zerbaiten premia?

Zalantzak uxatzeko, eta, hein handi batean, beste erremediorik izan ez nuelako, Noarekin hitz egin nuen azkenean, ea ba zer gertatzen zen. Esan nion: hauxe naiz. Esan nion: hauxe nahi nuke. Esan nion: zuk ikusi laztana. Nik neuk ikusi nuen, ordea, halakorik lehenago planteatzea eragozten zidan errezeloak bazuela funtsik: elkarren neska-lagun ohiak bihurtu ginen.

Halako batean, COVID-19 zela-eta bi hilabetez konfinatuta egon eta gero, eta ulertu nuelarik nitaz asper-asper eginda zegoela bere etxean geratzen utzi zidan adiskidea –nire neska-lagunik ohirik aspaldikoa–, argi eta garbi geratu zitzaidan beste zerbait behar nuela.

Beste zerbait.

Idealista.com.

Aurrekariak

Kontua da gurasoek beren betiko pisua saldu zutela nik neuk etxea erosi baino zertxobait lehenago. Kontua da: etxea erosi: bai esapide bitxia, ezta?; zer esan nahi dugun ulertzen da, jakina, baina zer diogu? Kontua da hazi nintzen pisua saldu zutela gurasoek. Kontua da familiako etxe bat zela. Kontua da nire gurasoena izan aurretik nire aitona-amonena izan zela: ni neu ez ezik, nire aita ere hazi zen hor. Kontua da etxe berriago batera aldatzeko saldu zutela, zahartzen hasiak zirelako ustez (igogailua etab.), baina kontua da uste dudala amari astuna egin zitzaiola betidanik ama-aitagarreben itzalean bizitzea eta, jada hilak ziren arren, arantza moduko bat kendu zuela apartamentu zentrikoago baina argi gutxiagoko batera joanda. Kontua da: apartamentu bat norberarena. Kontua da autoarekin antzeko zeratxo bat daukala amak, emakumeen autonomiarako ezinbestekoa dela uste du, eta, horregatik, 18 urterekin karneta ateratzera behartu ninduen, bueno, eskolak ordaindu zizkidan, berari gertatu zitzaion berdina gerta ez zekidan. Kontua da, berari, karneta atera eta gero, bere autonomiaren gailur horretara iritsi eta gero, ez zuela batere erabili gertatu zitzaiola, eta azkenean kadukatu egin zitzaiola gidabaimena. Kontua da, karneta ateratzeaz aparte, gizon batekin ezkondu zela, eta umeak izan zituela, eta, bolada batez, etxetik kanpo lan egiteari utzi ziola umez arduratzeko, eta ez zuela izan, bada, autoa berak gidatzeko premiarik. Kontua da kontakizun higitu-errepikatu-topiko bat dirudiela, baina gertatu egin zitzaiola. Kontua da nik neuk ere, nahiz eta 18 urterekin karneta atera, ez nuela bolanterik ukitu karrera amaitu arte. Kontua da ez nuela behar. Kontua da behingoz gidatzen hasi

nintzenean nire neska-lagun ohirik aspaldikoenari esker izan zela, haren autoan eta haren freskatze-saioei esker. Kontua da orduantxe atera nintzela armairutik amaren aurrean, betiko etxeko sukaldean. Kontua da, egiaz, neska batekin nenbilela esan niola. Kontua da tristatu egin zela. Kontua da ni zoriontsua izatea nahi omen zuela eta horrek [bollera izateak, armairutik ateratzeak] bizia zailduko omen zidala. Kontua da, hala ere, bere alaba omen nintzela, bere alaba izango omen nintzela beti, eta bera nire ama, eta beti maite izango ninduela (nauela), kontuak kontu. Kontua da egia dela, gutxi gorabehera. Kontua da alabok kulpabilitatearen kontua kudeatu behar izaten dugula. Kontua da, autoan banenbilelako poztu arren, nire neska-lagun ohirik aspaldikoena (garaian, nire neska-laguna) tartean izateak zertxobait zapuzten zuela uste dudala. Kontua da ez dakidala zein zuen handiagoa amak, poza edo zaputza. Kontua da beren alabengandik klase- eta politizazio-arrakala sakon batek bereizten dituen ama maketoez ere kudeatu behar dituztela barrenean sortzen zaizkien eta haietarako inork prestatu ez zituen sentimendu kontraesankorrak. Kontua da: eta aita, non dago? Kontua da, betiko etxea saldu egingo zutela esan zidatenean, harritu egin nintzela, eta uste nuela atximurka egingo zidala bihotzean, nire iragana desagertuko zelakoan. Kontua da teoriar hori sentitu beharko nukeela iruditzen zitzaidalako pentsatu nituela gauza horiek. Kontua da halako kontuak kontatzen dituzten hamaika kontakizun daudela ziur aski nire inkontziente kolektiboan pilatuta. Kontua da, ordea, istorio hori ez zela nirea. Kontua da batzuek bai nahi izaten dutela atzean utzi iragana. Kontua da, ez etxe hartan bereziki, baina bai bertan bizi izan nintzen urteetan, iruditzen zaidala ez nintzela guztiz ni. Kontua da zoritxarrekoa izan nintzela haurtzaroan eta nerabezaroan, gurasoek ahalik eta hobekien egin zuten arren eskura zituzten tresnekin. Kontua da leku latza zela ikastola. Kontua da men egin nuela kanpoan utz ez nindezaten. Kontua da norbere burua ezkutatzeko edo moldatzeko edo makurtzeko baduela bere eragintxoaren norbere buruarekin ondo eta lasai sentitzea dagokionez. Kontua da betiko etxea jabez aldatu aurretik betiko etxea agurtzera joan beharko nukeela uste nuela. Kontua da hala zegokiola iruditzen zitzaidala. Kontua da azkenean ez nintzela etxea agurtzera joan. Kontua da egunak pasa zirela, kontua da nire bizitzan buru-belarri sartuta nengoela, kontua da une horretan zeregin garrantzitsuagoak nituela. Kontua da nire inkontzienteak erabaki zuela, erabaki gabe, nire partez. Kontua da ez naizela damutzen. Kontua da ez didala ausiki egiten bihotzean. Kontua da ohera sartzen naizenean eta kontu mingarriak akordatzen zaizkidanean inoiz ez zaidala burura etortzen etxe hari agur esan ez izanaren kontua. Kontua da ez naizela gogoratu ere egin orain arte. Kontua da mudantzan ere ez niela lagundu. Kontua da nire gauzak ere bazirela tartean. Kontua da, alde horretatik, guraso emanak izan direla, ustez gurasoek izan behar duten bezalakoak. Kontua da alde horretatik ez digutela kulpabilitaterik ez erantzukizunik inokulatu. Kontua da erantzukizun bakarra genuela: ikastea eta berek baino kapital kultural, sinboliko eta ekonomiko handiagoa metatzea, gorpuztea. Kontua da baserria eta labranza atzean utzitakoan arbasoek hasitako gorabide sozialarekin jarraitzeko besterik ez zigutela eskatzen. Kontua da egin genuela, hein batean behintzat. Kontua da hor noraezean 90eko uzta. Kontua da agerian geratu zela ez gorabide soziala ez progresoa ez zirela egia. Kontua da 2000ko hamarkadaren amaiera. Kontua da higiezinaren burbuila. Kontua da petrolio finitua. Kontua da, orain, beren etxe berrian bizi direla gurasoak. Kontua da gela bat daukatela niretzat. Kontua da ez dela nire gela, erabat-ni izan ez nintzen gela; beste gela bat baizik. Kontua da gela berria karga afektiborik gabeko gela bat dela. Kontua da gela zaharretik lehen aldiz beste gela batera joan nintzen unetik aurrera, tartean joan-etorri gehiago izan baziren ere, bide bati ekin niola, betiko etxean bizi izandako ni-arrotza ni-neu bihurtzeko. Kontua da, pentsatzen dudanean ez naizela hara inoiz gehiago itzuliko, pena ez baizik lasaitua hartzen dudala.

Kontua da nostalgiaren kontrakoa sentitzen dudala. Kontua da, gela hartatik, batik bat, halakoak oroitzen ditudala: bakardadea; isiltasuna; diferentzia. Kontua da: gurasoek lana eta neba askoz zaharragoa. Kontua da, orain, beharbada, behingoz besarka dezakedala neska hura, eta aurrera segi.

Gertaera materialak

Ikusi nuen lehen etxea ikusi ahal izateko, higiezin-agentziakoek pasabaimen bat egin zidaten, jaurlearitzak finkatutako ordutegietatik kanpo egin baikenuen hitzordua.

Bigarrena goizeko 11tan ikusi nuen: esaneko eta arauzale. Huraxe erosi nuen.

Jendeari kontatu nion. Goizetako eta batez ere iluntzetako paseoen garaia zen. Batzuk harritu egin ziren. Hipotekadunek, zegozkion galderak eginda, ontzat jo zuten inbertsioa, nahiz eta beren kautarako pentsatu auzoa urrun samar zegoela (aukeran), ez zela beren auzoa (aukeran), eta berek, berez, ez zirela inoiz-inoiz-inoiz hara joango –hipoteka-ahalmen handiagoko jendea zen, batez ere–; beste zenbait –okupak; etxerik erosteko modurik inoiz izango ez zutenak; etxebizitza-kooperatiba kolektiboak eraikitzeke ahaleginean zebiltzanak; hipotekak kaltetutakoan asanbladetakoa; turistifikazioaren kontra egoteaz aparte turistifikazioaren kontra ekiten zutenak– zer esan ez zekitela geratu ziren, eta eskuzabaltasunez entzun zidaten, inork haur bat izango duela aipatzen didanean neronek erakutsi nahi izaten dudana keinu atsegin-asmoa aurpegian.

Nire neska-lagun ohirik aspaldikoenak galdetu zidan ea komenigarria iruditzen zitzaidan halako erabaki handi bat hartzea krisi potente baten erdian –pandemiak ekarritako krisi orokorra + beraren etxean ostatu hartzera eraman ninduen krisi pertsonala–. Galdera moduan planteatzen saiatu zen, baina argi zegoen berari ez zitzaiola komenigarria iruditzen. Konfinamendua hasi aurreko astean Dorrea lau egunez segidan atera zitzaidala esan nion: eta badakizu zer esan nahi duen: norberaren bizitza azpiko zgora jartzen duten gertakari kolektiboak! Harrezkero, beldurrak airean, egunero tarot-karta bat ateratzeari utzi niola ere kontatu nion. Muturra okertu zuen – haren mutur-okertze mitikoa: mesfidatia bezain maitagarria–, eta ezer izatekotan zentzuduna nintzela erantzun nion nik: ondotoxoz zekiela.

Nire neska-lagun ohirik aspaldikoena ez zen ohartzen, baina idealista.com-en lehendabiziko aldiz nire kasara ausartu nintzen hartan, zerbait konprenitu nuen, zerbait sakona, edo, besterik ez bada, justifikatuta geratu zen nire azken dozena-erdi urtetako obedientzia, justifikatuta geratu ziren tarte horretan –nire helduaroaren hasierako urteak– eginak nituen ergelkeria guztiak, hala nola faktura mordo bat kobratu ahal izateko egin beharreko guztia egitea eta enkarguak bata bestearen atzetik onartzea eta gainetik kentzea, torlojuak egiten ari banintz bezala –konparazio paradigmaticoa–, nahiz eta ustez langile kreatiboa izan, eta nire beste pasio guztiak alde batera uztea eta gastuak ordaintzeko behar nuena baino puskaraz gehiago irabaztea eta irabazten nuena baino gutxiago gastatzea, eta, horretan guztian ari nintzelarik, bidenabar, nire neska-lagun ohirik aspaldikoenarekiko harremana –eta ziur aski beste hamaika harreman– pikutara bidaltzea.

Horri esker, higiezin-agentziakoarekin bigarren hitzordua egin eta hiru egunera aurrekontratua sinatu genuenean, etxearen salneurriaren % 20 ordaintzeko adina diru neukan kontu korrontean, eta gainerakoa Kutxabankek mailegatuko zidan, interes-tasa finkoarekin.

55 m² + balkoia. Egonkortasun-ilusioa ziurgabetasunean.

Orain, agian, atsedeen hartu ahal izango nuen.

Ebazpena

hartzailea: noa.albert@gmail.com

gaia: coucou

kaixo, ederra:

ondo zaude? hala espero.

zurekin gogoratu naiz aste honetan. etxearen esanahiari buruzko testu bat idazteko eskatu didate, zerbait literarioa, ez iritzi-artikulu bat, eta agertu egiten zara. (zeharka, baina bueno).

uste dut grazia egingo dizula, zuk inork baino hobeto dakizu-eta nolako buruhaustea izan ditudan asunto horrekin, eta, aldi berean, alokairuan bizi izan naizenetan (eta etxe berriarekin ere) zelako potra santua izan dudana. nola esaten zenidan? oinetako-parea erosten duenak bezala erosi duzu etxea. seguru asko arazo gehiago izan banu lehenago espabilatuko nintzatekeen, edo?

nire bitzta galdera horretan, literal.

auskalo.

bueno, harira. badakizu enrollatzeko joera handia daukadala. vane persianas etxabe. jaja.

agertu egiten zarenez, eta, bestela ere, nire zutabeñoen fan number one izan zarenez beti, bidali egin nahi nizun. ea zer iruditzen zaizun. erantsita doakizu dokumentua, eta zerbait aipatu nahi badidazu telefonoz edo whatsapppe hitz egin dezakegu (edo bestela zuzenean datorren astean, belakoren kontzertua baino lehen?). konforme samar geratu naiz, eta ez dut uste ezer aldatzeko prest nagoenik, jeje. baina ez kezkatu, ez dago ezer txarrik, edo ez behintzat dagoeneko ez dakizunik ;)

eta gero beste gauza bat. etxeen inguruan pentsatu dudanez testua idazteko, eta terapeutarekin hitz eginda, eta aurrekoan nagorekin pote bat hartzen ere komentatu nion, porlanezko etxeei ihes egitearekin batera ez ote naizen haragizko etxeen bila ibili luzaroan, ni neu naizen haragizko etxe honetatik kanpo. zuen gorputzetan babestu naizela, alegia, eta agian gehiegi. gauza onak kenduta, klaro, ze zurekin hitz egitea nire etxea da oraindik, zure begirada ere bai, eta burua nire

bularrean jarrita loak hartzen zenuenean bezalako betetasunik eta bakerik ez dut inoiz sentitu, eta, zorionez, ez zait sekula ahaztuko.

baina bueno, ona kenduta, egia da seguru asko tranpa pixka bat egin dudala, denok egiten dugun moduan, eta zuen gorputzetan bilatu dudala nire buruari emateko gai ez nintzena, zuen gorputzekin tapatu nahi izan dudala pertsonak berezkoa duen zulo abisal hori: azken batean, adiskiderik onenak inguruan izan arren eta komunitate baten parte garenok ere –eta eskerrak!–, bakarrik gaude gure kakan, noizbait ere hil egingo gara, eta bakarrik pasatuko ditugu hemengo azkenak.

en fin, seguru asko zuk hau badakizu ya, eta orain parez pare egongo bagina, ah bon ? esango zenidake, irribarrez, eta, jarraian, t'es la meilleure.

kontua da ni orain konturatu naizela.

maite zaitut. eskerrik asko denagatik.

vane

Paris, 2022ko uztaila¹

¹ Hau idazten ari nintzela hainbat lagun izan ditut alboan. Testuaren azken bertsioak izugarri zor dio Aintzane Usandizagaren begirada finari eta proposamenei. Luzaroan jarrai dezagula krisi literarioetan elkarri laguntzen! Halaber, asko lagundu didate Uxue Alberdiren eta Ainhoa Urienen iruzkin zoliek. Azkenik, *but not least*, ezinbestekoa izan da Mainer Ilarregiren whatsapp-audio bidezko quality-checka. Mila esker guztiei.